



Oier Peña - Mikel Fernández  
Aixerrota BHI, 15-16

# Aurkibidea

Juan Kruz Igerabide ..... 3

Sarrera ..... 3

## ***Motoa***

• Kokapena ..... 4

• Gaia ..... 4

• Argumentua ..... 4

• Istorioa ..... 5

• Pertsonaiak ..... 6

• Egituraketa ..... 7

• Baliabideak ..... 7

Iritzia ..... 8

Bibliografia - Webgrafia ..... 9

## JUAN KRUZ IGERABIDE

Juan Kruz Igerabide Adunan, Gipuzkoa, jaio zen 1956an, eta gaur egun bertan bizi da. Maisu ikasketak egin eta irakaslea izan zen zenbait herritan zortzi urtez. Gero Filologia ikasi eta Euskal Filologian doktoregoa lortu zuen. Gaur egun Euskal Herriko



Unibertsitateko irakasle da, Euskal Filologia sailean. Poesia ikertuz eta idatziz sartu zen literaturaren munduan. Haur literaturako ikerketak ere egin zituen eta bere lehen liburua *Begi niniaren poemak* izan zen. Geroztik lan ugari argitaratu ditu, poesiaz zein prosaz. Hala nola, *Izar bat agertu da*, *Elurra sutan* edo *Mailu isila*.

## SARRERA

*Motoa* eleberria Juan Kruz Igerabidek idatzi zuen, eta lehen aldiz 2012an argitaratu zuen Alberdania S.L. argitaletxeak, eta *Ostiral Saila* bildumaren parte da.

Igor izeneko nerabe baten arazoa kontatzen digu, eta bere bizipen familiarrak, amodiozkoak eta lagunartekoak. Liburuak 104 orrialde ditu, hiru ataletan banaturik.

## *MOTOA*

- **Kokapena**

Eleberri gaur eguneko munduan kokaturik dago, Gipuzkoako herri batean, Leitzarain ibaitik hurbil. Horregatik, baliteke idazlearen jaioterri den Adunan oinarritua egotea.

- **Gaia**

Istorioaren gaia adiskidetasuna eta maitasuna dira, Igorrek, Irenetaz maitemindurik, egiten dituen lagun berriak eta haiekin duen harremana kontakizunaren mamia direlako. Gainera, drogek, gaur egungo krisiak eta familiak garrantzi handia dute Juan Kruz Igerabideren eleberri honetan.

- **Argumentua**

Igorrek bere motoarekin neska bat, Irene, salbatu ondoren, berarekin maitemintzen da, eta berarekin egoteko nahiaren ondorioz mutil nagusiagoen koadrilla batean sartzen da. Haiekin gauz irteten hasiko da, bere klaseko errendimendua jaitsi egingo da eta alkohola edaten hasiko da, baita drogak hartzen ere. Baina lagun talde honek berarekin dituzten intentzioak ezagutu eta gero, bere arrebaren, aspaldiko lagun Tripazorroren eta haren aitaren laguntzarekin zera lortuko du: nagusiek, Irene tartean, duten droga salmenta argitara ateratzea.

## ● Istorioa

Igor, 15 urteko nerabea, bere arreba Marinarekin eta aitarekin bizi da. Oso maite zuen aitona duela ez asko hil da, eta amak familia utzi eta bere maitalearekin joana da. Arazo ekonomikoa dute, amaren jokoarekiko zaletasunak eragindako zorraren ondorioz. Igorrek, aitonak utzitako diruaren zati txiki batekin, txatartegian motorra erosten du, eta bere lagun eta mekanikari Tripazorreren laguntzaz motoari potentzia trukatu eta koloreztatu egiten du.

Egun batean, Tripazorreri motoa lapurtuko diote, eta Igorrekin motoaren bila dabiltzala parke batean, neska bat ihesi agertu eta Igorrek bere motoan igotzen utziko dio, eta etxeraino eraman. Neskak Irene du izena, eta nagusiagoa izan arren, Igor berarekin maiteminduko da. Horrela, Irenerekin egoteko nahiak bultzatuta, neskaren lagunekin hasiko da egoten, giro arriskutsu batean. Arrazoi honengatik bere arrebarekin duen harremana, lehenik oso ona izan ez arren, are gehiago okertuko da. Aitak, bitartean, arazo ekonomikoagatik kezkatu jarraituko du, eta ez dio semeari arreta handiegirik eskaintzen. Gainera, eskolako errendimenduan gainbehera nabarmena izango du.

Igor, lagun berriekin duen harremanaren ondorioz, astebururo gauetan berandura arte egongo da etxetik kanpo, eta Irene bere etxeraino eramaten du gau horietan guztietan. Bestalde, giro horrek eraginda, alkohola edaten hasiko da, eta baita drogaren bat ere. Gau horietako batean, Txino eta Irenek Igorri drogaren negozioan sartzea proposatzen diote, pakete batzuk eramanez, baina Igorrek ezetz esan eta jipoitu egingo dute. Mendekua lortzeko, Igorrek, Txinoren lagun Karretas-ekin batera, Txino eta Ireneri zenbait droga pakete lapurtzea erabakiko du. Honen ondoren, Igorrek ez ditu berriro ikusiko, eta Tripazorreri esker jakingo du borroka itzel baten ondoren guztiak ospitalean edo atxilotuta zeudela. Ondoren, Tripazorreri, bere aitari eta Marinari dena kontatu eta droga pakete guztiak aurkituko dituzte eta poliziari eman, Irene eta Txino atxilotzeko.

## ● **Pertsonaiak**

### **Igor**

Esan bezala, Igor da istorioaren protagonista, 15 urteko mutil oso lotsati eta isila. Mtoa trebetasun handiz gidatzen du. Lagun gutxiko nerabea da, bere bizilagun Tripazorro da ikus dezakegun lagun bakarra. Igorrek gorroto du gauzak aurpegira esatea eta are gehiago ingelesez izan behar bada.

### **Irene**

Igorren institutuko ikasle bat da, bera baino nagusiagoa. Ile hori eta begi urdinak ditu, eta irribarre ezti bat. Txinoren neskalaguna da, baina Igorrekin egotea gustuko du, amaieran aprobetxatzeko bakarrik zela adierazten bada ere.

### **Tripazorro**

Igorren lagun bakarra da, eta bera baino zaharragoa hau ere. Txikitatik Igor babestu duen mutila da, sabel biribila, gaztaina koloreko begiak eta beti hortzeria erakusten dabilena. Tripazorro oso mekaniko ona da eta Igorri mtoa konpontzen eta berritzen lagundu zion.

### **Marina**

Igorren arreba da, bi urte zaharragoa. Igorrekin haserretzen den bakoitzean hika egiten dio. Igeltserotzako modulu bat egiten ari da institutuan, DBH gaudituz ez zuelako, ama hil aurretik zuen jarreraren ondorioz.

### **Txino**

Ireneren nobioa da. Batxilergoa errepikatzen dago eta hogeitatu bat urte ditu gutxienez. Karretas eta Arratoia ditu lagun. Harroputza da eta dena bere kontrolpean eduki nahi du.

### **Igor eta Marinaren aita**

Furgoneta batekin, banaketa-lanean ibiltzen da. Bere emaztea beste maitale batekin joana da, eta horrek eraldatu egin du: triste samar egoten da, eta beti oso nekatuta bueltatzen da lanetik.

## **Karretas**

txinoren lagunetako bat da, herrena. Institutuan errepikatzaille profesionala da, eta ez du ospe onik; faltsutzat eta arriskutsutzat daukate kideek. Igorrekin Txinoren drogak lapurtzeko plana burutzen du, Igor Irene eta Txinorekin haserretu ondoren.

### ● **Egituraketa**

Egiturari dagokionez, Juan Kruz Igerabideren eleberri hau era lineal batean kontatuta dago; hau da, narratzaileak istorioko gertaerak ordena kronologikoan kontatzen ditu. Egia da eleberriaren hasieran hainbat flashback egiten direla Igorren egoera hobeto ulertzeko. Horretaz gain, istorio osoak pertsonaia berberari buruz hitz egiten du, Igorri buruz.

Liburu honek hiru atal ditu: lehenengoan pertsonaien aurkezpena eta hasierako egoera azaltzen dira; ondoren istorioak dituen arazo nagusiak ikus ditzakegu, eta azkenengo zatian azken arazoa eta hari aurkitutako soluzioak adierazten dira.

### ● **Baliabideak**

Narratzailea orojakilea da, pertsonaien sentimendu eta pentsamenduak baitakizki. Erabilitako estiloa nahiko sinple eta zuzena da. Ez du hiztegi zailegia erabiltzen, eta hitz batzuk hiztegian bilatu behar diren arren, orokorrean ondo ulertzen da.

## IRITZIA

Juan Kruz Igerabideren *Motoa* eleberriak irakurlea harrapatzeko duen ahalmena ikaragarria da, batez ere istorioaren arazoa ezagutzen den unetik aurrera, Igorrek Irene ezagutzen duenetik aurrera. Horren aurretik hasierako egoera azaltzen da, eta hori gainerako kontakizuna baino astunagoa suertatu daiteke. Hala ere, idazleak erabilitako deskribapen labur eta zehatzei esker eta pertsonaiaren iraganeko pasadizoak kontatzeari esker, hasierako egoera horren azalpena antzeko egitura duten eleberri gehienetan baino entretenigarriagoa eta arinagoa da. Pasadizo horien artean ziurrenik harrigarriena edo zirraragarrienetakoa eskolako jantokian gertatzen dena da. Igorrek, eleberriko protagonistak, irakasleen txipiroiak lapurtu eta ikaskideen artean banatzen ditu, irakasleen gezurrari aurre egiteko, haiek baitzioten ikasleek jaten zutena bera bazkaltzen zutela. Hori are harrigarriagoa da Igorren izaera lotsati eta zaputza kontuan izanik.

Istorioren kontakitari dagokionez, ekintzak bata bestaren atzetik jarraian etortzeak erritmo bizia jartzen dio eleberriari, eta horrek irakurketa asko arintzen du. Hori eta liburuaren luzera motza (100 orrialde inguru) kontuan izanik, irakurketa oso bizkorra da. Ekintza hauen artean txundigarrienetako Irene Igorren aurrean larrugorritan jartzen denekoa da, honek etxeraino eramán ondoren. Irene alkoholaren eraginpean dago, eta Igorrek bere etxeko garajeraino eramán ondoren biluzik jarri eta larrua jotzea proposatzen dio. Igorrek, dena den, ezetz esaten dio, eta joan beharra duela.

Horrelako pasarteek nerabeentzako eleberri aproposa bihurtzen dute *Motoa*, gazteei interesatzen zaizkien hainbat gai jorratzen baititu: maitasuna, adiskidetasuna eta drogak eta alkohola. Gainera, idazleak erabilitako estilo zuzen eta sinpleari esker, eta hiztegi ez oso zailari esker, eleberri interesgarri, irakurtzeko erraz eta arina da.

Pertsonaiei dagokienez, bizitza errealeko pertsonaiak dirudite eta izaera garatuak dituzte. Ia guztiek gordetzen dute sekreturen bat: Irene Igorrez aprobeztatzen saiatzen da eta droga trafikoko parte garrantzitsua da, nagusiaren alaba baita; Karretas-ek bere lagunei traizio egiten die; Igorren amak, eleberrian agertzen ez den arren, jokoarekikoa menpekotasuna du;



Igorren aita tabernan emakume batekin geratzen ari da..., eta honek guztiak istorioari aurretik jakin ezin diren gauzak eta misterio puntu bat gehitzen dizkio.

Laburbilduz, Juan Kruz Igerabideren eleberri honek istorio zirraragarri batean murgiltzen du irakurlea, gaur eguneko gaiak lantzen dituen nerabeentzako kontakizun irakurtzeko erraz eta bizkor batean.

## WEBGRAFIA · BIBLIOGRAFIA

*Motoa*, Juan Kruz Igerabide. Alberdania.

<http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/motoa/motoa.pdf>

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>

<https://eu.wikipedia.org>